

Bradley, Francis Herbert

Clapham-en (London) 1846an jaioa, Oxford-en bizi eta hil zen 1924ean. Hegel-en *idealismoaren agerpen bat bezala aurkeztu izan da Bradley-ren filosofia. Hau, ordea, ez da erabat egia eta Bradley-k berak bera ez zela hegeldarra esan zuen. Idealista, monista eta, batez ere, antienpirista izanik, enpiristekin izan zituen eztabaidetan, aleman idealisten eta, bereziki, Hegel-en ideia batzu erabili zituela, hori bai, hori egia da. Obrak: The Presuppositions of Critical History, 1874; Appearance and Reality, 1893 (espainieraz itz.: Apariencia y realidad, 2 tomo, 1961).

Bradwardine, Thomas

Chichester-en (Britainia Haundia) jaio eta 1290-1349 urte bitartean bizi izandakoa. Matematika, fisika eta astronomia aztertu zituen filosofo eta teologoa da, Canterbury-ko artzapezpiku izan zena. Fisika eta matematika modernoen oinarritzko kontzeptu batzu aurreztuz, abiadura-proporzioen teoria landu zuen. Obrak: Tractatus de proportionibus velocitatum, 1495; Tractatus de continuo.

Brahman

*Hinduismoaren muin-muineko kontzeptu erlijiozko-filosofikoa da.

Goreneko *izpiritu edo "Izaki" unibertsala eta absolutua adierazten du: *Jainkoa. Jatorriz "botere sakratua" esan gura du; horregatik, *Hinduismoaren Jainkoarekiko abiaburuko adiera munduaren barneko *botere unibertsala izan da. Hortik aurrera landu du eskola bakoitzak Brahman-ekiko ideia: horien arteko desberdintasuna bereziki pertsonaltasun/ezpertsontasunean datza.

Brahman betierekoa da eta berezkoa, ez *denbora barruan sortua. Areago, beragandik dira *izaki eta gauza guztiak; eta beragana itzultzekoak dira. Brahman-engandik aparte ez da ezer: bera bait da guztien oinarria, bera izaki partikular izan gabe.

"Anima unibertsala" bezala ere itzuli izan da Brahman izena, eta *Atman unibertsal bezala ulertu. Atman banakakoak Brahman-engandikoak lirarteke, gizaki bakoitzagan haragiztatuak. Haragiztapen eta *berraragiztapenen kateatik askatuz batera, Atman banakakoak berriz Atman unibertsal edo Brahman-engan suntsituko lirarteke.

*Vedanta-ko eskolaren barruan *Advaita joera filosofikoak nabarmendu du bereziki Brahman-en adiera hau. Hala ere, Jainkoaren adiera hau ez dago erabat *monismoarekin edo *panteismoarekin nahasterik.

Brahman *transzendentea da munduari eta izaki guztiei begira, eta jainko konkretuez haraindikoa ere bai. --Horregatik ez du bere kultu-modu zuzenekorik ere, jainkoek hartzen duten bezala-- . Baina jakintsuen gogoetagai etengabea da Brahman.

Brahman, Izaki absolutu eta unibertsal bezala ulertzean --eta ez izaki (jainko) konkretu bezala--, neutroa da sanskritoz. Haren arrezko-forma --Brahma, azken "n" hizkirik gabe-- Trimurtu edo Hirutasun hinduko lehen Jainko nagusia da, eta Brahman-en pertsonalizazio bezala uler daiteke. Izatez, hinduismoaren Bakthi joeraren inguruko teologok Brahman-en adiera pertsonal hau nabarmendu dute.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Ekialdetar filosofia.

Braithwaite, Richard Bevan

1900ean jaiotako filosofoa da, 1953az geroztik Cambridg-eko Unibertsitatean Etika irakasten duena. Teoria fisikoetan aditua. Obra: Scientific Explanation: A Study of the Function of Theory, Probability and Law in Science, 1953 (espainierazko itz.: La explicación científica, 1965).

Bréhier, Emile

Bar-le-Duc-en (Meuse) 1876an jaio eta 1952an hildako filosofo frantsesa da, Rennes, Bordele eta Pariseko Unibertsitateetan irakatsi zuena. Filosofiaren historia landu zuen, batipat, eta arlo horretan beraren idazlanak oso ezagunak izan ziren. Aztertu zituen gaien artean hauexek aipatu behar ditugu: Filosofiaren historian dagoen kausalitatearen arazoa, historiaren aldizkako errepikarena eta kristau-filosofiarik baden ala ez galdera. Obrak: Histoire de la Philosophie, 1926-1930 (espainieraz itz.: Historia de la filosofía, 2 tomo, 1942; La Philosophie du Moyen Age, 1937 (espainieraz itz.:

La filosofía en la Edad Media, 1959; Les thèmes actuels de la Philosophie, 1951 (espainieraz itz.: Los temas actuales de la filosofía, 1958).

Brentano, Franz

Marienberg-en, Rhin-eko eskualdean jaio zen 1838an eta 1917an hil Zürich-en. Lehenik filosofia ikasi zuen München, Würzburg, Berlin eta Münster-en eta gero, gurasoen eraginez, teologia München eta Würzburg-en. Hemen apaiztu zen 1864ean; 1873an, ordea, apaizgintza eta Eliza katolikoa utzi egin zituen. Würzburg, Wien, Firenze eta Zürich-en irakatsi zuen, baina ez, bere egoera erlijiosoa zela eta, zailtasunik ezagutu gabe, Würzburg